

Zazpikiak zazpi urte

In: Euskaldunon Egunkaria: *Euskaldunon Egunkaria. Urtekaria 97*, Euskaldunon Egunkaria, Andoain, 1997: 3.

Euskaldunon Egunkaria ez zen normaltasun sozial eta politikoan jaio, gutxien esateko; kilikolozko egoera batean bizi izan genuen zortezko kazetari batzuek herri osoak urte luzeetan desiratutako zazpikiaren erditze harrigarri hura.

Egiazko estuasunak, urtetako agoniak, gero etorri ziren.

Haurrak, bularrez urri, baina hauspoz ongi, hitzez setati eta langile finez inguratuta, eutsi egin dio desesperoari hirurehun egun eta gauzez osatutako urteak banan-banan gaur ZAZPI dituen arte.

Ez dugu esango zorion osoz; errazegi litzateke hau esatea adierazpide bezala, baina badute ingelesez *point of no return* esaera argia dena: "atzera egin ezin den puntuan" gaude: errazagoa da eustea bertan behera lagatzea, uztea, baino: herriak lorpena jaso duelako, euskarak *Egunkaria* nahitaezko duelako eta esperientzian ekidinezinezko gertatzen diren akatsak gainditzeko fermuki prest gaudelako.

Aurrerantzean, bestalde, ulerpen osoa, publizitatearen justizia gehiago eta mesfidantza gutxiago aurkituko dugulako itxaropenetan.

Joxemi Zumalabe eta Joseba Jaka gogo barruan.